



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Insumisas. Mujeres en lucha en el Sáhara Occidental

dokumentalaren erakusketa independenteak egiteko deialdia

Jarraian, *Insumisas. Mujeres en lucha en el Sáhara Occidental* dokumentalaren erakusketa independenteak antolatzeko deialdiaren oinarriak aurkituko dituzu. Deialdia Hegoa Institutuak eta Forward Films produkzio-etxeak egin dute eta gizarte-erakundeei, erakunde publikoei eta herritarrei zuzenduta dago.

Deialdia ez dago lurralde jakin batera mugatuta eta **2023ko maiatzaren 29tik urriaren 30era** bitartean indarrean egongo da (hura luzatzeko aukera ere egongo da). Haren helburua filmaren zabalkunderik handiena sustatzea eta haren atzean dagoen [Gertatutako guztia argitan jarri](#) (Hegoa, 2022) txostenaren emaitzak ezagutzera ematea da.

Parte hartzeko baldintzak:

- Edozein pertsonak, gizarte-erakundek, kolektibok edo proiektzioa egingo den lurraldeko administrazio publikoko edozein organok parte har dezake deialdian;
- Izena emateko momentuan, eskaera egiten duen pertsonak erakusketa ekitaldiari buruzko oinarritzko informazioa eman beharko du (adibidez, lekua eta data, proiektzioa egiteko beharrezkoak diren gela eta ekipamendu teknikoak dituen, lokalaren edukiera eta jardueraren laburpen bat);
- Film honek emakume sahararren borroka bistaratzeko, laguntzeko eta indartzeko helburua du. Jarduerak, beraz, helburu sozial bat du, **ezin du irabazi asmorik izan eta ezin da sarrerarik kobratu;**

- Parte hartzen duten pertsonak eta erakundeek Hegoari eta Forward Films etxeari ekitaldiaren gaineko informazioa bidaltzeko konpromisoa hartzen dute (kartelak, argazkiak, bertaratutakoen kopurua, hizlarien izenak mahai-ingururen bat egitekotan, etab.);
- Parte hartzen duten pertsonak eta erakundeek Hegoak eta Forward Films etxeak emandako materialak erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, horiek behar ez bezala aldatu gabe;
- Parte hartzen duten pertsonak eta erakundeek lan honi lotutako eskubideak errespetatzeko, hura dagokion helburuekin erabiltzeko eta Hegoak eta Forward Films etxeak emandako artxibo originalak ez partekatze konpromisoa hartzen dute.

Parte hartzeko prozedura:

- Lehen urratsa erakusketa egiteko lekua eta data bilatzea da;
- Gero, [honako online galdetegi hau bete](#).
- Gure taldeak eskaera baloratuko du eta posta elektronikoz jarriko da zurekin kontaktuan;
- Gero, posta elektronikoz ere, ekitaldia arrakastatsua izateko oinarrizko jarraibideak jasoko dituzu;
- Gainera, zabalkunde material ofizialak bidaliko dizkizugu, jarduera sare sozialetan ezagutzera eman dezazun;
- Erakustaldiaren ostean, online galdetegi bat jasoko duzu, jarduera nola garatu den kontatzeko. Horrek filmak duen irismenaren irudi zehatza egiten lagunduko digu.

Zalantzarik izatekotan, idatzi contacto@forward-films.com edo hegoa@ehu.eus helbideetara.

Eskerrik asko zure interes eta parte-hartzeagatik!

FORWARD 

